

BASQUE LIVING LAB-EN FORUA-URDAIBAI ERAKUSKETARAKO GONBIDAPENA

Noiz:  17 **18 de junio (16:00-19:00) | Non:**  **DOCK, Uribitarte Ibilbidea 3, Bilbo**

Ongi etorri Forua-Urdaibaira, gure oinpeko lurzoruaren sustraiak eta bertan bizi diren izaki biziak interpretatzen dituen erakusketa.

Topaketa hau erakusketa bat baino gehiago da. Basque Living Lab-en lurzoruen osasunari buruzko ikaskuntza- eta baterako sorkuntza-prozesu baten ageriko zatia da, eta entzuteak, behaketak eta sorkuntzak markatzen dute. UPV/EHUko Arte Ederretako ikasleak, irakasleak gidatuta eta tokiko aholsek lagunduta, paisaia eta erronka ekologikoetan murgildu ziren, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak aurrez aurre duen Europar Batasunaren Lurzoru Misioaren esparruan. Han, bidezidorrak zeharkatu, lurrian ikasi eta lur honetako pertsonekin harremanetan jarri ziren. Bereziki, Foruko Udala eta herritarrak dira proiektu honetan lagundu dutenak.

Lan horretaz gozatzeko, DOCKn elkartuko gara, elkartruckerako, sormenerako eta elkarriketarako gune batean, eta prozesu horren emaitzak aztertuko ditugu: naturaren eta biodibertsitatearen edertasunaz ez ezik, lurzoruaren kalteberatasunaz eta hura babesteko dugun erantzukizun partekatuz ere hitz egiten duten artelanak.

Ekitaldiari hasiera emateko, bi mahai-inguru egingo dira: lehenik, Basque Living Lab-en sarrera bat, iCOSHELLS proiektu europarrarena, non ekimen hori eta lurzoruaren osasunera eta biodibertsitate bideratutako Lurzoruaren Misioa biltzen diren. Bigarren saio batean, ikasle-artisten hausnarketak entzungo ditugu, Urdaibaiko lurzoruak, biodibertsitateak eta kultura-nortasunak beren lanak nola inspiratu dituzten, eta kulturak eta sormenak kontzientziazio-lanetan duten garrantzia. Ondoren, erakusketan zehar ibiltzera gonbidatuko ditugu, artearekin interaktatzera, entzutera, galdetzeraz eta parte hartzeraz.

Forua-Urdaibaik gogoeta egitera gonbidatzen gaitu: Nola laguntzen digu arteak lurzoru izaki bizi gisa ikusten? Nola susta dezake sormenak kontzientzia ekologikoa? Eta zer esan nahi du lurra zaintzeak Urdaibairen etorkizunerako?

AGENDA

16:00 - 16:15. Irekiera eta ongi-etorria

16:15 – 16:55. Mahai-inguruak

16:15 - 16:35 Mahai-ingurua: Basque Living Lab eta Soil Mission | Mikel Magunazelaia, Jokin Garatea, Itxaso Garteizurrekoa, Julieta Barrenechea

16:35 - 16:55 Mahai-ingurua: artea eta kontzientziazioa | Itziar Vidorreta, Lucía Navas, Adrianna Cen, Koro Arregi

16:55 – 17:15. Urdaibai soinu-lanaren aurkezpena | José Mari Etxabe, Maria Victoria Urruzola

17:15 – 19:00. Hamaiketak eta erakusketa bisitatzea